

UNIBASQ-EN AHOLKU BATZORDEAREN 2017KO IRAILAREN 25EKO ERABAKIA TITULAZIO OFIZIALAK EBALUATZEKO PROGRAMETAN LANGILE AKADEMIKOEI ESKATU BEHARREKO BETEKIZUNEI DAGOKIENEZ.

Maiatzaren 29ko 420/2015 Errege Dekretuaren 4. artikuluan, kalifikazio egokia izango duten behar adina irakasle eta ikertzaile edukitzea ezartzen da unibertsitateek beren sorkuntza eta aitorpenerako bete beharreko betekizun gisa.

Zehazkiago, honako hau ezartzen da Errege Dekretu horren 7. artikuluan:

1. Unibertsitateetako irakasle eta ikertzaileek abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren IX. Tituluan xedatutakoari eta artikulua honetan bildutako aurreikuspenei jarraituko diete.
2. Unibertsitate bakoitzeko irakasle eta ikertzaileen guztizko kopurua ezin izango da izan **unibertsitate-irakaskuntza ofizialetan matrikulatutako ikasleen guztizko kopuruaren 1/25** baino txikiagoa. Ratio hori lanaldi osoko dedikazio-erregimenean edo lanaldi partzialari dagokion baliokidean konputatutako irakasle eta ikertzaileei dagokie. Ratioa modulatu ahal izango da unibertsitateak irakaskuntzak modalitate ez-presentzialean ematen dituenean, eta 1/50etik 1/100era bitartekoa izan daiteke, titulazioen esperimentalitate-mailaren eta izaera erdipresentzial handiagoaren edo txikiagoaren arabera.
3. Unibertsitateetan irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak egiten dituzten langileen osaera honako hau izango da gutxienez:
 - a) **Doktoreen ehuneko berrogeita hamar graduako titulu** bat lortzera bideratutako irakaskuntza guztietarako.
 - b) **Doktoreen ehuneko hirurogeita hamar Masterreko titulu** bat lortzera bideratutako irakaskuntza guztietarako.
 - c) Unibertsitatean **doktorego-irakaskuntzak** ematen dituzten **irakasle guztiek doktore-titulua eduki behar dute.**

Xede horri begira, irakasleen kopuru osoa zenbatzeko, lanaldi osoan jarduten duten irakasleen kopurua hartuko da aintzat. Halaber, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren hamabigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoari jarraikiz, Osasun Zientzien eremuan unibertsitateen eta osasun-erakundeen arteko kontzertuetan irakasle elkartuei dagokienez finkatutako plaza kopurua ez da kontuan hartuko artikulua honetan adierazitako ehunekoen ondorioetarako.

Doktore-titulurik ez duten irakasleek lizentziadun, arkitekto, ingeniari edo graduatuaren titulua edo baliokidea eduki beharko dute gutxienez, Unibertsitate Kontseiluak irakaskuntza-jarduera egingo den jakintza-arloetarako, oro har, diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari teknikoaren titulua nahikoa

dela ezartzen duenean izan ezik. Kasu horretan, eta arlo espezifiko horietan egin beharreko jarduerarako, nahikoa izango da irakasleek azken titulu horietakoren bat edukitzea.

4. Unibertsitateek, nolana ere, irakasle **guztien ehuneko hirurogeik** gutxienez beren funtzioak **lanaldi osoko** dedikazio-erregimenean beteko dituztela bermatu beharko du.

5. Unibertsitate publikoetako eta unibertsitate pribatuetako irakasleen bateragarritasunari dagokionez, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 72. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

6. Artikulu honetan aurreikusitako betekizunak egiaztatzeko, unibertsitateek irakasleen eta ikertzaileen plantilla eta irakaskuntzak guztiz ezarri arte izango duen urteko gehikuntzaren aurreikuspena aurkeztu beharko dute jardueraren hasieran.

Adierazitakoari jarraikiz, arestian aipatutako betekizunak aurkeztutako titulazio ofizial bakoitzaren egiaztapena egiaztatu, aldatu, jarraitu eta berritzeko ebaluazio-irizpide gisa ezartzea erabaki du Unibasq-eko Aholku Batzordeak.